



# HEMENGO ETA GAURKO ESKULTOREAK

Aranburu Jauregia  
Tolosa  
Azaroaren 9tik  
abenduaren 7ra

## ORDUTEGIA:

Asteartea, asteazkena  
osteguna, ostirala  
eta larunbata  
arratsaldeko 5,30etatik  
8,30etara

## INAUGURAZIOA:

Ostirala, azaroaren 9.  
Arratsaldeko 7etan

arte km.0

EFREN, IÑIGO MANTEROLA, ESKERRI  
PABLO JUARROS, VIRGINIA SARGAL  
KOKO RICO, VICTOR ARRIZABALAGA  
ALEX MORLOTEZ, HELENA SANTIAGO  
PAUL MONTAGNE, GILLES PLANTADE  
REGIS POCHELU, MARIJOSE RECALDE  
GUILLERMO OLMO, IMANOL ANDONEGI  
GOTZON HUEGUN, CHRISTIANE GIRAUD  
CORNE NUHAM, GERMAN DE LOS RIOS

TOLOSA 

  
AZKEN MUGA




“GAURKO ETA HEMENGO ESKULTOREAK”  
azaroaren 9tik abenduaren 7ra arte.

Joan zen mendearen bigarren erdian eskulturagintzak garrantzi handia hartu zuen gure jendartean, eta, horren bitartez, egungo mundu globalizatuarekin lotzen gara. Gaur egun, sukaldariak eta kirolariak dira gure enbaxadoreak. 6oko hamarkadan Chillidak, Oteizak, Mendiburuk, Basterretxeak, Larreak, Ibarrolak eta Carrerak “Gaur” eta “Emen” taldeak aurkeztu zituzten.

Oraingo honetan, berriz, “Gaurko eta hemengo eskultoreak” aurkeztuko dugu, Euskal Herri osoko 19 artisten erakusketa, lan ibilbide luzea daukatenak, neurri handi batean herri honetako ekoizpen artistikoaren egileak direnak eta euskal eskultura munduan zehar zabaltzen ari direnak, horren egungo egoera erakusteko eta eskulturgintzak gizartearekin izan zuen harremana berreskuratzeko .

Asmoa da hemengo artea ezagutzea eta kontsumitzea, o km-ko arte izatea eta artelan , ibilbide eta ikuspegi desberdinak dituzten zenbait artistak modu bateratuan aurkeztea beraien obra, eta, bide batez, mugimendu kolektibo berri bat sortzea, parte hartzailea eta toki askotako artistek osatuko dutena: Iparraldekoak, Hegoaldekoak, Nafarroakoak, Bilbokoak... Beste toki batzuetatik datozen artistak gurekin bat eginda, artearen arlo desberdinetatik datozenak edo eremu desberdinak lantzen dituztenak.

Alex Morlotez-en 5 metroko eskultura batek publikoa agurtuko du Aranburu-ren sarreran. Behin barruan, tamaina handiko obra batzuek txundituko gaituzte, Euskal Eskulturaren oraingo egoera erakutsiz: Corne Nuham burdina moldekatzen bere figuratibismo mitologikoarekin, Marijose Recalde birziklapenetik sortutako bere pertsonai magikoekin, Alex Morlotez tokiko ezaugarri nabarmenak dituen konstruktibismoarekin, German de los Ríos hausle eta lotsagabe, Guillermo Olmo forma geometrikoak desitxuratzen unibertso organikoetarantz, Helena Santano ikertzaile eta diziplina anitzeko sortzaile, Virginia Sargal buztina eta sentimendua, Eflen espazioa eta geometria, Pau Montague-k burdinaren alderdi berotsu eta organikoa erakutsiko diigu, Koko Rico eta gure alde iluna, Iñigo Manterola espazioa burdinez marrazten, Victor Arriabalaga Euskal Herriko pop artea, Gotzon Huegun bizia hartzen duen egurra, Pablo Juarros metalezko zertzeladak, Alberto Eskerri sinbolismoa eta espermentazioa, Imanol Andonegi estrukturaren estetika, Régis Pochelu emozioz eta energiaz betetako harria, Gilles Plantade grabitateari aurre egiten dion altzairua eta Christiane Giraud, arrazoiaren eta ekintzaren arteko oreka.





Tolosako Aranburu Jauregian "GAURKO ETA HEMENGO ESKULTOREAK"  
erakusketa dela-eta, atsegin handiz gonbidatu nahi zaituztegu Aranburu  
Jauregian egingo diren honakoetara:

#### PRENTSAURREKOA

Azaroaren 7a, asteazkena, goizeko 11:00etan

#### INAUGURAZIO-EKITALDIA

Azaroaren 9a, ostirala, arratsaldeko 19:00etan

Kontaktua:

[artolakolektiboa@gmail.com](mailto:artolakolektiboa@gmail.com)

Français: +33 626 721 838 Régis Pochelu

Euskara: +34 638 071 371 Gotzon Huegun

Español: +34 615 743 760 Guillermo Olmo

